DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAN ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMA ANTOLATU, KUDEATU ETA GARATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

A U R K I B I D E A

I.- KONTRATUAREN ALDERDI OROKORRAK ETA KONFIGURAZIOA

1.- KONTRATUAREN XEDEA
2.- KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA
4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO AURREIKUSIA
5.- FINANTZAKETA
6.- ORDAINTZEKO ERREGIMENA
7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
8.- BEHIN BETIKO BERMEA

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9.- ESLEITZEKO PROZEDURA
10.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOA
11.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK
12.- KONTRATATZEKO AHALMENA
13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
14.- KONTRATAZIO MAHAIA
15.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEAK
16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA
17.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA
18.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA
19.- KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

III.- KONTRATUA GAUZATZEA

20.- KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA
21.- KONTRATUAREN ARDURADUNA
22.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK
23.- KONTRATISTAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK
24.- KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK
25.- EKIPAMENDUAK ETA BITARTEKO PERTSONALAK
26.- BITARTEKO TEKNIKOAK
27.- INSTALAZIO FINKOAK
28.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK
29.- KONTRATUA ALDATZEA
30.- DATU PERTSONALEN BABESA
31.- SEGURTASUNA ETA LAN OSASUNA
32.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK
33.- HORNIDURA JASOTZEA ETA BERME EPEA
34.- KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK EZ-BETETZEENGATIK
35.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK
36.- KONTRATUA LAGATZEA
37.- AZPIKONTRATAZIOA

IV- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

38.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA
39.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK
40.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

I. ERANSKINA: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK
I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA: JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO DATUAK
II. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA
III. ERANSKINA: SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA
IV. ERANSKINA: KONTRATISTARI LAGATAKO MATERIALEN ZERRENDA

I.- KONTRATUAREN ALDERDI OROKORRAK ETA KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea izango da Debagoieneko Mankomunitatean Eskolatze Osagarriko programa antolatu, kudeatu eta garatzea, Plegu hau eta Baldintza teknikoen Plegua zorrotz betez, zeinek kontratu izaera izango baitute.

Kontratu hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetzak dagokion ikasturteko Eskolatze Osagarriko Programarako aldez aurreko baimena eta diru-laguntza ematearen baldintzapean dago.

Kontratu honen xedea sorta bakar gisa dago eratuta. Kontratazio espedientean sartutako Memoria Teknikoan azaltzen da zergatik ez dagokion lotetan zatitzea.

CPV kodea: 80510000-2 (Prestakuntza espezializatuko zerbitzuak).

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio espedientean emandako Memoria Teknikoan agertzen dira Mankomunitateak plegu honetako kontratua egiteko izan dituen arrazoiak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena ikasturte batekoa izango da, 2021/2022 ikasturtea.

Kontratazio organoak kontratua beste ikasturte baterako luzatu ahal izango du, 2022/2023 ikasturterako, eta kontratistarentzat derrigorrezkoa izango da luzapena, baldin eta aurretiko abisua kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO AURREIKUSIA

1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ikasturteko 72.500,-€ izango da, BEZetik salbuetsita; lizitatzaileek beherantz hobetu ahal izango dute aurrekontua.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko (aurrerantzean SPKL) 100.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu aurrekontua horrela xehatuko da:

- Pertsonal gastuak.

Kalkulatzen da programan inplikaturiko langileen kostua gutxi gorabehera 62.600 € izatea. Zenbateko horretan sartzen dira programa emango duten irakasleen kostua, administrarien kostua eta zuzendari arduradunaren kostua.

- Zuzeneko beste gastu batzuk.

Atal honetan sartzen dira irakaskuntzako materiala eta bulegoko materiala, baita irakaskuntza jardueran erabili beharreko erreminta eta beste tresna batzuk eta lehengaiak, 3.900 €-rekin kalkulatuta.

- Zeharkako gastuak.

Atal honetan hornidura kostuak sartzen dira (ura, elektrizitatea eta gasa), 4.700 €-rekin kalkulatuta.

- Egon daitezkeen beste gastu batzuk.

Atal honetan sartzen dira programari lotutako irakasleen eta arduradunen bidaia eta dietetatik eratorri daitezkeen gastuak, 1.300 €-rekin kalkulatuta gutxi gorabehera.

2.- Kontratuaren balio aurreikusia 145.000,-€ da.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, oraingo urteko aurrekontuaren kargurako finantzaketa bat dago aurreikusita, aurrekontuko 7090.226.324.00.62 eta 7090.226.324.00.63 ataletan. Halaber, aurrekontuetan eskumena duen organoak erreserbatu beharreko kredituak erreserbatuko ditu etorkizunean dagozkion aurrekontuetan.

6. ORDAINTZEKO ERREGIMENA

Kontratuaren urteko prezioaren ordainketa 12 hilabetekotan egingo da, dagokion faktura aurkeztu eta onartu eta gero.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasoarazi dadin, adierazten da kontabilitate publikoko gaietan eskumena duen organoa eta Kontratazio organoa eta unitate hartzailea Debagoieneko Mankomunitatea dela.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez dagokio prezioak berrikustea.

8. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren esleipenduna, bere gain hartu betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, behartuta dago behin betiko berme bat eratzera, esleipenaren zenbatekoaren %5en pareko zenbatekoarekin, BEZa kanpo.

Aipatutako berme hori eratzeko epea 17. klausulak aipatzen duen errekerimenduan adierazten dena izango da, eta SPKLren 108. artikuluan xedatutako edozein bideren bitartez egin ahal izango da. Bermea eratu dela egiaztatzeko, baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabili ahal izango dira. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada baldintza hori betetzen, Administrazioak ez du esleipenik egingo haren alde.

Bermea Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da, bermearen epea amaitu eta gero, eta esleipendunak kontratuko bere betebehar guztiak bete eta gero.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, LCSPn xedatutakoaren arabera, eta bere tramitazioan aipatu Legean eta bere garapen arauetan jasotzen diren ekintzak egingo dira.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau baliabide elektronikoen bidez tramitatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin bat etorriz. Ondorioz, Mankomunitateak lizitatzaileekin duen harremana ere baliabide horiek erabiliz gauzatuko da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak modu elektronikoan egingo dira.

12. KONTRATATZEKO AHALMENA

Kontratatzeko prozedura honetan beren gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaren jabe diren pertsona natural edo juridiko guztiek parte hartu ahal izango dute, beharrezko kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala badute, eta ez badaude LCSPren 71. artikuluan kontratatzeko xedatutako debekuetan sartuta. Kaudimena 17-5 klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatu eta baloratuko da.

Halaber, berez egin ahal izango da edo pertsona baimendunak ordezkatuta, xede horretarako emandako ahalordearen bitartez. Pertsona juridiko bat ordezkatuz bere kide bat agertzen denean, agiri bitartez egiaztatu beharko du horretarako ahalmena

duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeko aipatutako ezintasun arrazoiak egokituko zaizkio.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xedea den jarduera edo prestazioa egiteko exijitu daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena prozedura irekiz egingo da, esleitzeko irizpide askotarikoak erabiliz, kalitate-prezio erlaziorik onenaren printzipioan oinarrituta.

Hona hemen eskaintzak baloratu eta kontratua esleitzeko oinarri gisa balio izango duten irizpideak eta horiei ematen zaien haztapena:

1. Proiektu teknikoaren kalitatea: %50.
2. Proposamen ekonomikoa: %45.
3. Jarduera osagarrien garapena: %5.

Aipatutako irizpideetatik, balorazioko iritziaren araberakoak eta balorazio automatikokoen aurretik baloratuko direnak honako hauek izango dira:

1.- Balio judizio baten menpe dauden irizpideak: 50%

- **Proiektu teknikoaren kalitatea: 50 puntu.**
  Alderdi hauek baloratuko dira:
  - Hezkuntza proiektua: 45 puntu. Hauxe baloratuko da:
    - Proiektu pedagogikoa. (15 puntu).
    - Prestakuntza plana. (10 puntu).
    - Lanerako orientazioko planen egokitasuna eta eskolaz kanpoko jardueren proposamena. (10 puntu).
    - Ikaslearen jarraipena egiteko prozedurak eta jatorriko zentroarekin proposatutako harremanen programazioa. (5 puntu).
    - Proposatutako egutegiaren egokitasuna, bai ikasleentzat bai irakasleentzat, programa garatzeko. (5 puntu).

- Proposatutako langileak, langileak subrogatzeko aukeraren kalterik gabe: 5 puntu.

  Proposatutako bitarteko pertsonalak programaren beharretara zein mailatan egokitzen diren eta irakasleen profilaren egokitasuna baloratuko da.

2.- Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak: %50.

- **Kontratuaren urteko prezioa: 45 puntu.**

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioa kalkulatzeko, interpolazio lineala erabiliko da, P1 puntuko (Gehieneko baxua, Puntuazio maximoa) eta P2 puntuko (Zero baxua, Puntuazio minimoa) bi puntuekin definitutako zuzenaren arabera, eta puntu horiek mugatzen duten zuzen horren segmentuaren arabera.

Hauek dira aipatutako puntuak (P1 eta P2):

P1 – Eskaintza merkeenari dagokiona (Gehieneko baxua), zeinari Pmax puntuko puntuazioa emango zaion, gehieneko puntuazioa.
P2 – Lizitazio Motari dagokiona, zeinari gutxieneko puntuazioa emango zaion, honako formula honen arabera:

Gutxieneko puntuazioa, Lizitazio Motari dagokiona:
Pmin= Pmax x (1- Bmax *2)
Non, Bmax = Gehieneko baxua

Baxutzat (B) ulertzen da lizitazio motaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio motarekin zatituta.

Pmin kalkulua negatiboa bada, Pmin = 0 dela joko da.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako oinarri eskaintzak baino ez dira kontuan hartuko.

Berez, edozein proposamen neurrigabetzat edo ausartegitzat jo ahal izango da, baldin eta bere portzentajea, gutxienez, onartutako oinarri proposamen guztien baxu portzentajeen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate gehiago bada, eta hori deklaratzeko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, bertan sartzen diren lizitatzaile guztiei aurretiaz informazioa eskatu eta gero, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza jaso eta gero.

- **Jarduera osagarrien garapena: 5 puntu.**

Lan arlorako hurbilpen bat egiteko xedearekin, eta lantokien dinamikak ezagutzeko, 5 punturekin baloratuko dira eskualdeko enpresetara bi (2) bisita egiteko konpromisoa gehitzen duten proposamenak, ikasleek ekoizpen prozesuak eta enpresak kudeatzeko sistemak ezagutu eta kontrastatu ahal izan ditzaten.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria:
  - Mankomunitateko lehendakaria
- Mahaikideak:
  - Garapen Ekonomikorako Agentziako Zerbitzuko arduradun teknikoa
  - Mankomunitateko behin-behineko kontu hartzailea
  - Mankomunitateko behin-behineko idazkaria
- Idazkaria:
  - Mankomunitateko behin-behineko idazkaria

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Mankomunitate honen kontratatzailearen profilean iragarriko da, zeina Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman ostatatuta dagoen.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bitartez, aipatutako iragarkia agertu eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko epean, adierazitako epearen azken eguneko 14:00etara arte.

Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean sartzeko, honako helbide hau erabili beharko da: www.debagoiena.eus. Gune horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori proposamenak jasotzeko ezarritako azken data baino sei egun lehenagoko epean emango da, baldin eta eskaera proposamenak jasotzeko lehen adierazitako azken data baino 12 egun lehenago egin bada.

SPKLren 136.2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeen barruan eman, eta eskaintzak lekuan bertan bisita bat egin eta gero edo pleguari atxikitako dokumentazioa in situ kontsultatu eta gero baino ezin izan badira egin, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragindako hautagaiek eskaintzak formulatzeko behar duten informazio guztia ezagutu ahal izateko komenigarritzat jotzen den denboran.

Lizitaziorako prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako baliabide elektronikoen bidez aurkeztu ez den eskaintzarik. Ondorio horietarako, ezinbesteko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman edo Sektore Publikoko Kontrataziorako Plataforman erregistratutako erabiltzailea izatea.

Eskaintzaren dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, lizitatzaileak fitxategi okerrean sartutako dokumentua modu digitalean aurkeztea onartuko da, gehienez ere egoera hori jakinarazi eta 24 orduko epean. Ondoren aurkezten den dokumentuak ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekin alderatuta. Kontratazio Organoak egiaztatzen badu dokumentuan aldaketak egin direla, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenek Administrazio Klausula Partikularren Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan xedatutakoa bete beharko dute, eta, aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela aipatutako klausulak edo baldintzak, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta, halaber, baimena ematen diela Mahaiari eta Kontratazio Organoari Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat baino ezingo du aurkeztu. Halaber, ezin izango du beste lizitatzaile batzuekin batera enpresen aldi baterako elkartea eginez proposamenik aurkeztu aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Informazio publikoa eskuratzeari buruzko legedian xedatutakoaren kalterik gabe, eta hautagaiei eta lizitatzaileei esleipenaren inguruan eman beharreko publizitateari eta informazioari buruz SPKLn xedatutakoaren kalterik gabe, horiek konfidentzialtzat jo dezakete eskaintzak formulatzen dituztenean ematen duten informazioaren zati bat, bereziki sekretu teknikoei edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei dagokienez. Mankomunitateak ezin izango du informazio hori jakinarazi dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek hiru gutun azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatuta, eta klausula honetan gutun azal bakoitzerako zehazten den edukiarekin.

"A" GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"

Gutun azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako posta elektronikoko helbide bat esleitzea, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egiteko. (I Eranskinaren Adenda)

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, baita plegu honetan kontratua eskuratzeko baldintzak ere. Adierazpena bat etorriko da Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren formularioaren arabera egingo da (DEUC), eta, hori betetzeko, plegu honetako I. Eranskinean dauden jarraibideak jarraitu daitezke.

Hala ere, Kontratazio Mahai edo Organoak, prozedura ondo burutzea bermatu beharrez, esleipenaren aurreko edozein momentutan eskatu ahalko du lizitatzaileek aurkeztea kontratuaren esleipenduna izateko plegu honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

c) Enpresen aldi baterako elkarte moduan aurkezten diren operadoreei dagokienez (ABEE), partaideetako bakoitzak bere Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko du. Halaber, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko dute kontratuaren esleipendunak suertatuko balira, eta zehaztu beharko dituzte haietako bakoitzaren izenak, inguruabarrak eta ABEEan duten parte hartzea.

d) LCSPren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat eginda, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartekoetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere Erantzukizunpeko Adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Legean eta plegu mota honetan eskatutako pertsonalitate, gaitasun eta kaudimen baldintzen konkurrentzia baloratzeko momentu erabakigarria izango da eskaintzak aurkezteko epearen amaiera.

"B" GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- "BALIO JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK". Gutun azal horrek balio judizio baten arabera baloratuko diren irizpideen agiriak izango ditu, zeinak plegu honetako 13. klausulan zehazten baitira:

- **Proiektu teknikoa**, ahalik eta gehien zehaztuta hezkuntza programak antolatu, kudeatu eta garatzeko modua, behar horiek asetzeko aurreikusitako baliabideak eta planifikazioaren egokitasunaren justifikazioa.

  Aipatu proiektuan, gutxienez, edukiak zehaztuko dira, ahalik eta modurik argienean azalduta, dokumentua egoki eta ahalik eta zehatzen egituratuta, behar bezala ebaluatu ahal izateko.

  - Proiektu pedagogikoa. helburu orokorrak, metodologia eta ebaluatzeko prozedura.
  - Prestakuntza Planaren eskema, zeinak kontuan hartu beharko baititu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DBHrako proposatutako ikasgaien programazioa eta egutegia.
  - Ikaslearen koordinazio eta jarraipen plana, jatorriko Zentroaren eta harrekoaren artean ezarritakoa, Zentro bakoitzeko erreferentziazko pertsonak zehaztuta.
  - Hezkuntza eta lan orientazioko plana.
  - Lizitatzaileak proposatzen dituen giza baliabide eta materialen zerrenda.
  - Eskolaz kanpoko jardueren xehetasuna.
  - Irakaskuntza kontratu honetarako izendatutako taldearen curriculum zehatza, langileak subrogatzeko aukeraren kalterik gabe.
  - Aipatu taldearen euskararen ezagutzaren ziurtagiriak.
  - Ikasturteko egutegi eta ordutegiaren proposamena ikasleentzat eta irakasleentzat.

Inola ere ez da fitxategi elektroniko horretan sartuko “C” fitxategi elektronikoari dagokion agiririk.

"C" GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Gutun azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Proposamen ekonomikoa, II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
b) Dagokionean, eskualdeko enpresetara bi bisita egiteko konpromisoa.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako hauek egingo dira:

1º. "A" GUTUN AZALA IREKITZEA

Mahaiak «A» gutun azala irekiko du elektronikoki eta bertan dagoen dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak hautematen badu aurkeztutako dokumentuetan konpondu beharreko akatsak daudela, dagokien lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akatsak konpontzeko.

Gainera, lizitatzaileei konpontzeko helarazten zaizkien eskaerak Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman ere iragarriko dira.

2º. "B" GUTUN AZALA IREKITZEA

«B» gutun azalean aurkezten den dokumentazioa, zeinak balio judizio baten menpe dauden irizpideak baitaude, kontratatzailearen profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratzen den leku, egun eta orduan irekiko da.

3º. "C" GUTUN AZALA IREKITZEA

"B" gutun azala ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak "C" gutun azala irekiko du jendearen aurrean, Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean adierazitako leku, egun eta orduan.

Ekintza horretan eskaintza bakoitzean balio judizio baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

4º. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak garrantziaren arabera (handienekotik txikienekora) sailkatuko ditu Kontratazio Mahaiak, eta, egin beharrekoak egin eta gero, proposamena helaraziko dio Kontratazio Organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen lizitatzailearen alde, eta ez du horrelako eskubiderik bereganatuko, Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen den arte.

LCSPren 149. artikuluan xedatutakoari jarraituz, proposamen bat edo batzuk anormalki baxuegitzat jo daitezkeela identifikatzen bada, eskaintza anormalki baxuegiak direla jotzeko, aurrez proposamena aurkeztu duen lizitatzaileari (edo lizitatzaileei, hala badagokio) entzun beharko zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko da. Kasu horretan, lizitatzaileak emandako justifikazioa eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den proposamena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena, Administrazioaren nahierara betetzeko modukotzat jotzen bada.

Aitzitik, Kontratazio Organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio baxu anormalak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki onuragarriena den proposamenaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako guztiaren berri emango da espedientean, derrigor idatziko diren aktetan jasota.

5º. LEHEN SAILKATUARENTZAKO ERREKERIMENDUA

Kontratazio Organoak Mahaiaren proposamena onartu eta gero, kontratazio zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita, ondoren adierazten diren egintzak egiteko edo dokumentuak aurkezteko:

a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordez jardunez gero, notarioaren ahalordea, Mankomunitate honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura edo, hala badagokio, aldaketarena, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu behar zaion merkataritza legeriaren arabera inskribapena derrigorrezkoa denean. Hala ez balitz, jarduteko ahalmena duela egiaztatzeko, eraketa eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze egintza erabiliko dira, jarduera arautzen duten arauak jasota, horiek denak dagokien Erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.

Europar Batasuneko kide diren Estatuetako enpresari ez espainiarrak direnean, enpresa duten Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute edo, aplikagarri zaizkien Europar Erkidegoko xedapenen arabera, zinpeko aitorpena edo egiaztagiria aurkeztu.

Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztagiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, uneko ekitaldiari badagokio, edo JEZaren azken egiaztagiria gainerako kasuetan; eta kasu batean zein bestean erantzukizunpeko adierazpen bat ere emango da, aipatutako zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela adierazteko.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak. Lizitatzaileak azken hiru urteetan izandako urteko negozio zifra aurkeztu

beharko da, eta joandako hiru azken urteetan negozio bolumen handieneko urtean izandako zifra, gutxienez, kontratu honi kalkulatzen zaion balioaren bat eta erdi halako izan beharko da.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio bolumena egiaztatuko da onetsitako eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuen bidez, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; eta bestela, inskribaturik dagoen erregistro ofizialean aurkeztutako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribaturik ez dauden enpresaburuek, berriz, Merkataritza Erregistroak legez onartutako inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio bolumena.

e) Kaudimen teknikoa egiaztatzeko dokumentuak. Enpresa lizitatzaileak azken hiru urtean antzeko hezkuntza programak antolatu, kudeatu eta garatu dituela egiaztatu beharko du.

Enpresa lizitatzaileak, era berean, **bere eskaintzan proposatutako bitarteko pertsonalen kontratuari atxikitzeko konpromisoa aurkeztu beharko du**. Enpresa esleipendunak, zerbitzua gauzatu bitartean, mantendu egin beharko ditu bitarteko horiek. Zeinahi aldaketa eginez gero, horren berri eman beharko dio Mankomunitateari. Baldintza horiek **funtsezko kontratu betebeharraren** izaera dute, eta, SPKLren 76.2. artikuluaren arabera, betebeharra ez betetzeak kontratua bertan behera uztea eragin dezake, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

f) Lizitaziora jotzeko hainbat enpresarik Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratu badute, hori osatzen duten enpresetako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Halaber, ABEEko kide bakoitzak xedearen zein proportzio egingo duen adieraziko du, guztien kaudimenaren gaineko baldintzak zehazte eta egiaztatze aldera.

g) Atzerriko enpresentzat, maila guztietako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jartzeko deklarazioa, kontratutik zuzenean edo zeharka

ondoriozta daitezkeen intzidentzia guztietarako; gainera, hala badagokio, lizitatzaileak uko egingo dio egokitu lekiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.

h) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzea.

i) Behin betiko bermea eratu dela egiaztatzea.

j) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa

Aurreko a), b) eta d) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeko aurkeztu daiteke Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren egiaztagiri bat, Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialarena, edo ziurtagiri komunitario bat, hori guztia SPKLren 96. eta 97. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman daitezke.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzaileak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenean geratu den hurrenkeraren arabera.

Atal honetan aipatu errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak akats zuzengarriak balitu, 3 egun naturaleko epea emango da horiek konpontzeko. Honako hau zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Mankomunitateko kontratatzaile profilean ere argitaratuko da.

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleitzea, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, LCSPren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Esleipenaren berri emango zaie lizitatzaile guztiei, eta Instituzio honen kontratatzaile profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio agiri gisa formalizatuz burutuko da, eta aipatutako agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskaera egin dezake, eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

15 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeari ekin beharko zaio.

19. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo ez gauzatzeko erabakia hartu ahal izango du. Halaber, prozedura bertan behera utzi ahal izango du, kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin den akatsik baldin badago. Kontratua ez gauzatzeko erabakia zein prozedura bertan behera uztekoa kontratua formalizatu aurretik hartu beharko dira, eta aipatu artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan xedatutako klausulak betez, eta Mankomunitatearen gidaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean, zeinak eskumen horiek ahoz zein idatziz baliatuko dituen.

Kontratistari edo bere menpeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintza edo omisioengatik kontratuaren martxa egokia arriskuan jartzen bada, Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko exijitu ahal izango du kontratua behar bezala gauzatzeko.

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua esleitzeko erabakian Mankomunitateko teknikari bat izendatuko da kontratuaren erantzulea izateko, kontratua gauzatzearen inguruko ikuskapena egiteko eskumenarekin eta jarraibideak emateko ahalmenarekin.

22. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau gauzatzeko baldintza berezi hauek exijituko dira:

Gizarte baldintzak, berdintasun gaietan:

Kontratua gauzatzean, Eskolatze programa garatzean, enpresa esleipendunak emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna bermatu beharko du, bai eta komunikazio eta argitalpen guztietan hizkuntza ez-sexista erabiliko dela ere.

Baldintza horiek funtsezko kontratu betebeharraren izaera dute, eta, SPKLren 201. artikuluaren arabera, betebeharra ez betetzeak kontratua bertan behera uztea eragin dezake, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

23. KONTRATISTAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

Kontratistak, gainera, betebehar hauek bete beharko ditu:

a) Zerbitzua adostutako jarraitasunarekin egingo du, eta partikularrei bermatuko die ezarritako baldintzetan erabiltzeko eskubidea, inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe.

b) Zerbitzuaren ordena egokia zaintzea.

c) Zerbitzua garatzeko beharrezko operazion ondorioz hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteak indemnizatzea, Mankomunitateari egotzi dakizkiokeen kausengatik gertatzen direnean izan ezik.

d) Dagokionean, kontratuaren arabera entregatu beharreko obrak eta instalazioak entregatzea, kontserbazio eta funtzionamendu egoera egokian.

24. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratistak indarrean dauden lege xedapenak bete beharko ditu lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez, baita soldata baldintzei dagokienez ere, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera; hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez. Mankomunitatea salbuetsita geratuko da hori ez betetzeagatik sor daitezkeen erantzukizunetatik.

Kontratista, enplegatzailea den heinean, kontratu honen xedeko zerbitzua egiten ari diren langileak subrogatzeko betebeharra dauka; horien lan baldintzei buruzko informazioa plegu honetako III. Eranskinean daude. Kontratistak subrogatzeko betebeharra betetzen ez badu, plegu honetako 34 klausulan aipatutako zigorrak aplikatuko dira.

SPKLren 130 artikuluaren arabera, halaber, kontratistaren betebeharra izango da subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen erantzule izatea, baita kontratua suntsitzen denean eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituenean ere; betebehar hori ez da inola ere izango kontratista berriarena. Kasu honetan, Mankomunitateak, aipatu soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

25.- EKIPAMENDUA ETA BITARTEKO PERTSONALAK

Kontratistak eskaintzan adierazitako ekipamenduarekin eta bitarteko pertsonalekin egin beharko ditu lanak. Enpresa esleipendunak zerbitzuak dirauen denbora guztian mantendu beharko ditu bitarteko horiek. Horien inguruan edozein aldaketa egiteko

Mankomunitatearen baimena beharko du. Bitarteko pertsonalak esleitu behar hori kontratuaren **funtsezko obligaziotzat** jo beharko da, eta, ondorioz, SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Halaber, esleipendunak beharrezko langileak kontratatuko ditu edonolako ordezkapenak egiteko: gaixotasunek edo istripuek eragindako bajak, baimenak, lizentziak, oporrak edo behar bezala justifikatutako beste absentzia batzuk.

26.- BITARTEKO TEKNIKOAK

Kontratistak kontratu honen xedeko lanak zuzen egiteko beharrekoz bitarteko materialak jarriko ditu.

Mankomunitateak esleipendunaren esku jarriko ditu Baldintzen Plegu honetako IV. Eranskinean zehaztutako bitarteko materialak, eta kontratistak bere materiala erabiltzeko baldintza berberetan erabiliko ditu, eta kontserbazio eta garbitasun egoerarik onenean mantendu beharko ditu. Mankomunitateak lagatako baliabide horien erabilera Oinarrizko Lanbide Heziketako programarekin partekatuko da.

Gainerako elementu materialak esleipendunak jarri beharko ditu.

27.- INSTALAZIO FINKOAK

Mankomunitateak esleipendunaren esku jarriko ditu jarraian zehaztutako instalazio finkoak; zehazki, Arrasateko Nafarroa Etorbidea 21eko Zaldibar eraikinean daudenak. Mankomunitateak utzitako baliabide horiek Oinarrizko Lanbide Heziketako programarekin partekatu beharko dira. Beharrezkoak diren gainerako instalazioak esleipendunak jarriko ditu.

- Esleipendunari bost tailer hornitu utziko zaizkio (inbentarioaren arabera), irakasgai teknologiko zein praktikoak emateko. Hauek dira tailerrak: Mekanika, Instalazio Elektrikoak, Iturgintza, Zurgintza, Sukaldaritza.
- Informatika gela.

- Irakaskuntza teorikorako lau gela.
- Liburutegia.
- Irakasleen gela eta zuzendaritza.
- Administrazio bulegoa.
- Biltegia.
- Gizon zein emakumeentzako komunak.
- Garbiketarako material eta tresnen gela.

Instalazio finko horien erabileratik eratorritako gastu guztiak (telefonoa, elektrizitatea, ura, zergak, konponketak, etab.) kontratistaren kontura joango dira.

Lizitatzaileak konponketak egin nahi baditu aipatutako gela edo lokaletan, Mankomunitateari aurkeztu beharko dizkio, hark onar ditzan.

Esleipendunaren betebeharra izango da instalazio finkoko elementu guztiak egoera onean edukitzea, kontserbazioari eta garbiketari dagokienez. Esleipendunak egin beharko ditu premiazkoak diren prebentzio lanak, goitik beherako garbiketak eta matxuren konponketak.

Kontratistak Mankomunitatearen jabetzakoak diren instalazio finkoak behar bezala zaindu eta kontserbatzeko daukan betebeharra bermatzeko, Mankomunitateak, egoki iritzitakoan, esku hartze teknikoak egingo ditu instalazio horietan.

Kontratua amaitzen denean, Mankomunitateari itzuli beharreko instalazio guztiek ahalik eta egoera onenean egon beharko dute, eta zerga guztietatik libre.

Mankomunitatearen kontrola edozein izanda ere, kontratistaren erantzukizuna izango da instalazio finkoak zaintzea, eta instalazioen erabateko segurtasuna etengabe bermatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak jarri beharko ditu.

Enpresa esleipendunak Baldintza Plegu honen xede diren zerbitzuetarako eta soilik horietarako baliatuko ditu instalazio eta lokal guztiak. Ezingo ditu erabili, inola ere, kontratu honekin zerikusirik ez duen beste zeinahi zeregin edo lan partikular

gauzatzeko. Dena den, Mankomunitateak berak agindutako beste zerbitzu berezi batzuk izan litezke salbuespen.

28. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, kontratista izango da kontratua gauzatzeak eskatutako eragiketen ondorioz sortutako kalteen erantzulea.

29. KONTRATUA ALDATZEA

Mankomunitateak interes publikoko arrazoiengatik alda lezake kontratua, baldin eta SPKLren 205. artikuluan espresuki aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, Lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita; betiere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatu gabe.

Arestian aipatutako aldaketa posible horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, baldin eta bakarka edo elkarrekin, kontratuaren hasierako prezioa aldatzen badute (ehuneko 20tik beherako zenbatekoan, BEZa kanpo). Zenbatekoa dela kausa, aldaketa ez bada derrigorrezkoa kontratistarentzat, aldaketa horretarako berariazko adostasuna beharko da.

30. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak kontratu hau gauzatzean Mankomunitatearen kontura eskuratuko dituen datu pertsonalen tratamenduaren helburua izango da Eskolatze Osagarriko Programan sartutako ikasleen kudeaketa.

Kontratistaren betebeharra da SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian, eta gainerako datuen babesari buruzko nazio-araudian eta Europar Batasunekoan xedatzen dena betetzea.

Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, deklarazio bat aurkeztu beharko du jakinaraziz zerbitzariak non egongo diren kokatuta eta nondik emango diren beraiekin loturiko zerbitzuak, eta kontratua indarrean dagoen bitartean edozein aldaketaren beri eman beharko dio Mankomunitateari.

Lizitatzaileek bere proposamenean adierazi beharko dute zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten duten, enpresaren izena eta profila.

Kontratua dela-eta ateratzen edo eskuratzen diren dokumentuak eta informazioa konfidentzialak izango dira eta ez dira inolako bitarteko edo euskarriren bidez ez osorik ez partzialki erreproduzitu ahal izango; ez dira tratamendu edo edizio informatikoaren xede izango eta ez zaizkie hirugarrenei transmitituko beren zuzeneko exekuzio eremu mugatutik kanpo, ezta kontratu honen esleipendun den erakundeak dituen edo izan ditzakeen langileen artean ere.

Kontratuaren esleipendun den erakundearen eta bertako langileen betebeharra da eskuragarri duten informazio guztia erabateko sekretupean gordetzea eta informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko zehazten diren neurri tekniko eta antolaketa neurri guztiak betetzea. Izenpetutako kontratutik eratorriko lotura amaitu eta iraungi eta gero ere, betebehar horiek bete egingo dira.

Betebehar hauek funtsezko kontratu betebeharraren izaera dute, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

31. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Debagoieneko Mankomunitateak, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, lan-arriskuen prebentzioaren arloan behar den dokumentazioa eskatuko dio enpresa esleipendunari.

32. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu hau, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 6. artikuluan xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidearen menpekoa da. Bestalde,

honako hauek arautzen dute: batetik, 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizko legea; bestetik, 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, EAEko administrazio publikoetan euskararen erabileraren normalizazio prozesua arautzen duena; eta, azkenik, Debagoieneko Mankomunitatean (2013-2017) xedatutako hizkuntza irizpideak.

Horren ondorioz, kontuan hartuta kontratu hau hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidearen menpekoa dela, euskara zein gaztelania zerbitzu hizkuntzak dira, eta beti bermatuko dira herritarren hizkuntza eskubideak. Horregatik, zerbitzu ematean ahoz zein idatziz jakinarazpenik egin beharko balitz, bi hizkuntzak erabiliko lirateke, euskarari lehentasuna emanez. Debagoieneko Mankomunitateak erabakiko du zer hizkuntzatan eman prestakuntza. Prestakuntzan erabiliko den materiala ere bi hizkuntzatan egongo da, eta une bakoitzean dagokiona erabiliko da.

Baldintza plegu hauetan jasotzen diren hizkuntza eskakizunak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, eta eskakizun horiek ez betetzeak beste baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berak eduki ditzake; hau da, zigorrak ezartzea edo kontratua bertan behera uztea eragin dezake.

Langileen hizkuntza gaitasuna:

Administrazioarekin edo hirugarrenekin eduki beharreko harremanetan, kontratatutako enpresako langileek, euren hizkuntza gaitasunei dagokienez, bermatu beharko dute administrazio kontratatzaileari exijitzen zaizkion baldintzen antzekoak betetzen dituztela. Kontratatu beharreko zerbitzuaren izaera aintzat hartuta, irakasleek Europako Erreferentzia Esparruaren C1 gaitasun maila (EGAren baliokidea) egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasunak egiaztatzeko, eskatutako titulazioa aurkeztu beharko da.

Kontratua hasi ondoren irakasle berriak txertatuz gero, horiek ere dagokien hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntzen erabilera administrazioarekin:

Enpresa esleipendunak Debagoieneko Mankomunitatearekin izan ditzakeen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak...) Debagoieneko Mankomunitatearen lan hizkuntzaren araberakoak izango dira; hau da, euskaraz.

Hizkuntza irizpideen aplikazioaren jarraipena:

Kontratua sustatu duen administrazio atalak berak egingo du jarraipena, finkatutako hizkuntza baldintzak betetzen ote diren jakiteko, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari, onarpena eman dezan, edo neurri zuzentzaileak proposa ditzan.

33. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta hilabeteko epean gehienez ere, prestazioa hartzeko egintza formal eta positiboa egingo da.

Halaber, 3 HILABETEKO epea ezartzen da –harrera formalaren datatik zenbatzen hasita– berme gisa, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako. Epe horretan, egindako lanetan edo prestazioetan ager daitezkeen akats eta bizioen erantzulea izango da kontratista.

Epe hori igaro eta Mankomunitateak eragozpenik jarri ez badu, kontratistaren erantzukizuna iraungita geratuko da.

34. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK, HONAKO HAUEK EZ BETETZEAGATIK

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egiten bada kontratua gauzatzeko epea betetzeari dagokionez, izan epe osoa zein epe partzialak, Administrazioak kontratua bertan behera utzi –eta bermea galdu– edo zigorrak ezar ditzake, eguneko 0,60 euroko proportzioan kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, BEZa kanpo.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera iristen diren aldiro, Kontratazio Organoak eskumena izango du kontratua bertan behera uztea edo gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

B. Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala betetzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea ala kontratuaren prezio osoaren %10eko zigorra ezartzea.

C. Betetze akastuna

Prestazioa akatsez bete bada, Administrazioak zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

D. Gizarte eta lan arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak betetzen, eta bereziki, soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa baino soldata baldintza txikiagoak modu larri eta maltzurrean aplikatzen baditu, Mankomunitateak, SPKLren 201. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zigorrak ezarri ahal izango ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, kontratistak ez baditu azpikontratistekiko betebeharrak betetzen, Administrazioak zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

F. Langileen subrogazio betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuaren eraginpeko langileen subrogazio betebeharrak, Administrazioak, SPKLren 130.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

35. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratu hau suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, 211. eta 313. artikuluetan xedatutakoak dira.

36. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistak kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, baldin eta:

a) Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan ez badira,
b) Lagapenak merkatuan lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu,
c) Kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira, eta
d) Lagapena SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunen arabera egiten bada.

37. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioa partzialki egitea. Edonola ere, azpikontratazio hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen,

azaroaren 8koaren, 215. eta 216. artikuluetan xedatutako baldintzak betez egingo da.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

38. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta plegu honen arabera eta baldintza teknikoen pleguaren arabera arautuko da. Bertan xedatuta ez dagoen guztirako, honako hauek xedatutakoa beteko da: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, eta, Lege horren aurka ez doan orotarako, aplikatuko dira Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, onartutakoa; urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; eta, hala badagokio, Administrazio Publikoen kontratazioari aplikatu beharreko gainerako arauak.

Administrazio Klausula Berezien Plegu honen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazioaren artean kontraesana gertatzen bada, Plegu honetan xedatutakoa nagusituko da.

39. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, betetzeko sortu daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, gauzapena etetea, bertan behera uztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, betiere, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horien baldintza eta ondorioekin.

40. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik ondorioztatu daitezkeen gai arazotsuak Kontratazio Organoak ebatziko ditu, eta horren erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta

zuzenean inpugnatu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hala badagokio, kontratazio gaietarako errekurtso berezia jartzeko aukeraren kalterik gabe, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 44tik 60ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozeinetan xedatutakoaren arabera.

EGINBIDEA.- Administrazio Klausula Berezien Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2021eko ekainaren 1ean egindako bilkuran.

Arrasaten, 2021eko ekainaren 3an.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

MARIA BELEN CHINCHURRETA IPARRAGUIRRE
C=ES, O=DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA-MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA, OU=51, OU=IDAZKARIA, OU=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, OU=Entitate publikoen ziurtagiri - Certificado de entidad publica, OU=Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko, dnQualifier=-dni 15359802B -cif P2000001D, CN=MARIA BELEN CHINCHURRETA IPARRAGUIRRE, G=MARIA BELEN, SN=CHINCHURRETA, SERIALNUMBER=15359802B
2021-06-04 09:43:27

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

I ERANSKINA

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

1. Kontratazio prozedura tramitatzeko (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1.1. Baldintza administratiboak:

a) Debagoieneko Mankomunitateak erabiltzea baimendutako ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikorako. Gaur egun hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria).
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria).
- NAN-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea:

a) Alta egoeran egotea eta indarreko ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
b) Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntza sisteman altan egotea.
c) Bi operadore ekonomikok edo gehiagok formalki elkarrekin parte hartzen badute ABEE elkarketa eratzeko konpromisoarekin, ABEE elkarketaren konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistraturik egon beharko du.

1.2. Baldintza teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:

Sistema erabiltzeko atari honetara sartu beharko da:

www.contratacion.euskadi.eus

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

* Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, eredua egokitu ABEE sortuko duten enpresa bakoitzeko ordezkari guztien datuak gehitzeko.

AITORTZEN DU(TE)

Kontratua adjudikatzeko prozedurarekin (izendapena eta espedientearen kodea) loturako jakinarazpen eta mezuen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzua	Zerbitzuak 2021/01

Jakinarazpenak eta mezuak elektronikoki egitearen ondorioetarako datuak honakoak dira[1]:

JAKINARAZPENETARAKO ETA MEZUETARAKO DATUAK

Kalea/Plaza/Etorbidea/...	**Zk.**	**Pisua**	**Aldea**
Udalerria	**PK**	**Probintzia**	
Telefono zenbakia	**Mugikorra**		

Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:

Hartzaile izango den pertsona:

Jakinarazpena/mezua jasotzeko hautatutako hizkuntza:	Euskara		Gaztelania	

1 *Adjudikaziodun suertatzekotan hainbat enpresak enpresen aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa aurkezten badute, helbide bakar bat aurkeztu beharko dute jakinarazpen eta mezuak jasotzeko ondorioetarako.*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena	**NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentziazko kodea**
Eskolatze Osagarriko programa antolatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzua	Zerbitzuak 2021-01

Adierazitako kontratazio espedientearen inguruan eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, honako **ESKAINTZA EKONOMIKO** hau proposatzen du: **…… €/urtean, BEZa kanpo.**

Eskaintza ekonomiko hau horrela banakatzen da:

…….
…….

Lekua eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*

III ERANSKINA

SUBROGATU BEHARREKO PERTSONALAREN ZERRENDA

Gaur egungo kontratistak, ARIZMENDI KOOPERATIBA ELKARTEAK emandako informazioa.

1 LANGILEA

- **Kategoria profesionala:** irakaslea.
- **Kontratu mota:** harreman sozietarioa, kooperatibako kide.
- **Lanaldia:** %50a.
- **Antzinatasuna:** 1996/09/01.
- **Kontratuaren iraupena:** behin betikoa.
- **Urteko ordainsari gordina:** 28.132,98 €
- **Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa:** kooperatibaren barne-araudia. Erreferentziazko hitzarmen kolektiboa: Euskal Herriko ikastolen hitzarmena.
- **Aplikagarri zaizkion itunak:** ez dago bestelako itunik.

2 LANGILEA

- **Kategoria profesionala:** monitorea.
- **Kontratu mota:** harreman sozietarioa, kooperatibako kide.
- **Lanaldia:** %50a.
- **Antzinatasuna:** 1990/09/01.
- **Kontratuaren iraupena:** behin betikoa.
- **Urteko ordainsari gordina:** 26.174,54 €
- **Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa:** kooperatibaren barne-araudia. Erreferentziazko hitzarmen kolektiboa: Euskal Herriko ikastolen hitzarmena.
- **Aplikagarri zaizkion itunak:** ez dago bestelako itunik.

IV ERANSKINA: KONTRATISTARI UTZITAKO MATERIALAREN ZERRENDA

PANTALLA PROYECTOR NOVO	1
PROYECTOR BENQ MP622	1
PC DELL	5
PC DELL OPTILEX INTER CORE	7
PORTATIL FUJITSU T3200	1
PORTATIL DELL VOSTRO 15102	
TV LE37C60 SAMSUNG 37”	1
PUERTA DE EMERGENCIA	1
PC DELL OPTILEX INTEL CORE	8
PC SOBREMESA	2
MONITOR P.BELL	4
DISCO DURO 500 GB	1
DISCO DURO	1
SILLAS CON PALA	20
CARRO TRANSPORTE	1
TV LED SAMSUNG	1
SERVIDOR	1
SILLON DIRECT. MAIN	2
SILLAS	90
IMPRESORA OKI 3400	1
IMPRESORA OKI C301dn	1
SCANER EPSON 3490	2

ESKOLATZE OSAGARRIKO TAILERRA

ORDENADOR MAC	1
ALDAMIO	1
CEPILLADORA	1
SIERRA CINTA VERTICAL	1
SIERRA	1
SIERRAS ELÉCTRICAS PEQUEÑAS	4
ATORNILLADORA SIN CABLE	1
CORTA CESPED STERWINS	1
CORTA BORDES STERWINS	1
ESCARIFICADORA	1
SIERRA DE MESA	1